

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

ZEHARKAKO POLITIKETARAKO ARLOA

Gobernantza Feminista Zerbitzu Unitatea

Laudioko Udaleko alkate-udalburuak 2026ko urtarrilaren 22an emandako 2026-79 Dekretuaren bidez onetsi zen Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumeei Laguntzeko 2026ko Udal Programaren deialdia

BDNS(Identif.): 883490.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/883490>).

Lehenengoa. Objektua

Zaugarritasun handiko egoeran dauden eta diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) nahiz etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria (EPO) jaso ezin duten emakumeei dirulaguntzak emateko sortu zen Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumeentzako Laguntzen Udal Programa.

Bigarrena. Onuradunak

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak, genero-indarkeriaren biktima izateko egiaztagiririk izan ez arren eta erasotzailea salatu ez arren, baldin eta zaugarritasun handiko egoeran badaude eta diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) nahiz etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria (EPO) jaso ezin badute.

Hirugarrena. Ordenantza arautzailea

Deialdi hori Laudioko Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantzak arautuko du. 2021eko martxoaren 10ean argitaratu zen ALHAOn (28. zk.).

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiaren diru-kopurua 15.000,00 euro da.

Bosgarrena. Eskerak aurkezteko epea

2026ko ekitaldi osoan, izaera finalista izanda abenduaren 31n.

Laudio, 2026ko urtarrilaren 22a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ